

Garazi Arozena Azarola

B maila • 1 aipamena

Kaixo! Ni Garazi Arozena Azarola naiz, Beasaingo La Salle San Jose ikastetxeko DBH3-ko ikaslea. Txiki txikitatik, arte mundua ikaragarri gustatu zait eta horrekin lotuta, barnean dudana idazteko joera eta zaletasuna. Antzerkigintzan, bertsolaritzan eta musikagintzan ibiltzen naiz; beti esan ohi dut, nire espresatzeko hiru iturri ezberdin direla eta horiei esker, nire ezagutza aurrera daramadala. Irakurtzea atsegin dut, baina are gehiago, idaztea. Idazteak nire barneko sentrazioak mugitzen dizkidalako. Egia esan, gehien idaztea atsegin dudana poesia da. Izugarrizko imaginazioa eta inspirazioa dut. Inoiz ez dut horrelako sari handirik jaso, baina inguruko pertsonen sarritan esan didate nire idazteko era berezia dela.



SUGE MUNDUKO

Adina jendek ez daki
mundua ez dela amalurra soilik,
zuk baduzulako barne mundua batetik
eta kanpo mundua bestetik.

Esango nuke ohituta nagoela
kanpora begiratzeaz,
mundu honek bultzatzen nau eta
pentsaera hori izatea.

Noizbehinka mediatu
barnera begiratu,
zer gustatzen zaidan pentsatu
nire burua onartu eta maitatu.

Gertatzen zait sarri,
buruarekin ez nagoela gustora,
eta azaletik at, kanpora,
ondo nagoenaren plantak egiten ditudala.

Baina zainetatik jario den odolak
pozoia, edena, lupua dakar,
eta bihotzak barne barnean
arantzez eta elorritz beteriko larrosa bat.

Ondo nagoenaren plantak eginda ere
jendeak badaki zeozer dudala,
iraganeko sugearen koskadak,
orbainak utzi dizkit eta aurpegian.

Sugea, hark sortzen dituen nire bihotz taupadak,
sugea, bukatzen ari den istorio hau,
sugea, akaso bihar bueltan dator,
muxu bat eta patxo bat, zuretzako.